

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK. 2015-16 IKASTURTEA.

DOLORES IBARRURI BHIko "PASIONARIA" izeneko IGEk Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirola Sailak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzak eskaintzen ditu, lehiaketako kirol jarduerak (boleibola, saskibaloia, futbola,..) zein hastapen eta josteta jarduerak (surfa, eskia, mendia,..) Egin ditzaketen ekintzen informazio gehiago nahi izanez gero WEB orrialde hauek kontsultatu:

Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net/eskolakirola

DOLORES IBARRURI BHI: <http://www.doloresibarruribhi.hezkuntza.net/web/guest/eskolakirola>

KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK

Ekintza bakoitzaren ordua eta eguna, idazkaritzan izena emango duten ikasleen artean jarriko da (beheko zatia eman idazkaritzan). Gero, bilera bat izango dugu, irailaren 14an astelehenean, atsedenaldira (10:45ean) gimnasioan.

Ekintzak urrian hasi eta maiatzean amaituko dira. Materialak zein instalazioak errespetatu behar izango dira, era egokia erabiliz. Horrela gertatu ezean, egin beharrekoak egingo dira apurtutakoa bere onera bueltatzeko.

Ordainketa epe bakar batean egingo da, urritik maiatzerako epea, alegia, 80 € izanik. Ordainketa urria hilabetearen barru egin behar izango da. Jarritako ordaintzeko epeak errespetatzea eskatzen dizuegu ekintzak behar bezala funtzionatzearen. Ordainketa esandako epean ez bada egiten ekintzatik kanporatzea gerta daiteke. Ikasleek ordaindutako diru guztia monitoreei ematen zaie.

Behin egunak eta orduak ezagutu eta interesaturik egonez gero, ordainketak adierazitako datetan egin behar dira, ikaslearen izena eta egiten duen ekintza ondorengo kontu korrontean adieraziz:

BBK: 20950061519101409591

Proposatutako ekintzaren batean interesatuta egonez gero orri hau bete behar da matrikula egiterakoan edo irailaren 11n baino lehen, ostiralean, idazkaritzan eman behar da atsedenaldirako orduetan (10:45 - 11:15).

Banakako kasuak edota sortutako arazoak direla eta Institutuko IGErekin kontaktuan jarri, mesedez.



IKASLEAREN IZEN ABIZENAK:
HARREMANETARAKO TELEFONOA:
JAIOTZE DATA:
MAILA:
EKINTZA:
EGUN ETA ORDU PREFERENTEAK:
AITA / AMA / TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

Institutuak proposatutako ekintzetan parte hartzeko baimena ematen dut:

AITA / AMA / TUTOREAREN sinadura